

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Sailsa**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 56/2020 FORU DEKRETUA, ekainaren 16koa. Honen bidez, 2020ko urtarrilaren 1etik azaroaren 29ra titulua ematen duten, titulurako puntuatzen duten edo goragoko maila baterako sailkapena lortzeko diren kirol probetan parte hartzen duten Bizkaiko kirolarientzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira.

Euskara, Kultura eta Kiroleko Sailsak bere helburuen artean dauzka kirolaren sustapena eta Bizkaiko kirolarien babesa, lehen lerroan lehiatu daitezen.

Zentzu honetan, lan bikoitza egiten du: Lurralde Historikoan kalitatezko kirol jarduerak egin daitezzen sustatzea batetik, eta estatu zein nazioarte mailan emaitzak lortzeko xedearekin lehiatzen diren kirolariak zuzenean laguntzea.

Bigarren esparru honetan kokatzen da honako deialdia. Titulua ematen duten, titulurako puntuatzen duten edo goragoko maila baterako sailkapena lortzeko diren lehiaketetan parte-hartzea errazteko eta kirolariek elitera heltzeko aukera izateko, Bizkaiko Foru Aldundiak partez finantzatuko baititu Bizkaiko kirolariek kirol probetan parte hartzean dituzten gastuak (izen ematea, egonaldia, bidaiak eta mantenua), betiere banaka edo bikoteka hartzen badute parte eta probak 2020ko urtarrilaren 1etik azaroaren 29ra egiten badira.

Proposatutako xedapen orokorraren gaiari dagokion eskumena Bizkaiko Foru Aldundiarena da, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoko Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b.6 artikulua araber, lurralde historikoei baitagokie erakunde erkideek kirolaren sustapenaren arloan emandako arauak garatu eta betearazteko eskumena.

Halaber, Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legeak, ekainaren 11koak, 2.3 artikuluan adierazten du aginte publikoek, beren eskumen-esparruaren barruan, kirola egiteko eskubi-dea behar bezala gauzatzea bermatuko dutela, eta horretarako burutuko duten kirol politikak, besteak beste, printzipio hauek izango dituela oinarrian: lehiaketa-kirola bideratzea eta sustatzea eta euskal kirolari laguntzea Estatuan nahiz atzerrian.

Ekainaren 11ko 14/1998 Lege horren 5. artikulua, berriz, dio Lurralde historikokoetako foru-organoei dagokiela, zeini bere lurralde-esparruan, goi-mailako kirolean etorkizun oparoa izan dezaketen kirolariei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea.

Zehazki, eskuduntza hori Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari dagokio; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuarekin bat etorritik, sail horri, besteak beste, honako eginkizun hauek dagozkio:

- Kirola eta kirol espiritua sustatzea, kirola egiteko aukerak ematea (batez ere, umeei eta gazteei) eta belaunaldien arteko kirola bideratzea.
- Laguntza ematea kirolerako gaitasun nabarmena agertzen duten kirolariei.

Foru dekretu honek erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu. Printzipio horiek jasota daude Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Foru dekretu horretan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten hauek eman dira foru dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.



3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailletako gaien buruzko foru dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2020ko ekainaren 16ko bileran aztertutik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.—Diru-laguntza foralen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onestea

Titulua ematen duten, 2020ko urtarrilaren 1etik azaroaren 29ra titulurako puntuatzen duten edo goragoko maila baterako sailkapena lortzeko diren kirol probetan parte hartzen duten Bizkaiko kirolariei Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak emango dizkien diru-laguntzen oinarri-arauak eta deialdia onartzen dira.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. oinarria.—Diru-laguntzaren xedea

1. Dekretu honen bidez, diruz lagunduko dira titulua ematen duten, titulurako puntuatzen duten edo goragoko maila baterako sailkapena lortzeko diren kirol probetan parte hartzeko izen ematea, egonaldia, bidaiak eta mantenua direla-eta Bizkaiko kirolariei dituzten gastuak, betiere lehiaketetan banaka edo bikoteka hartzen badute parte eta probak 2020ko urtarrilaren 1etik azaroaren 29ra egiten badira.

Diru laguntza jaso dezaketen probak Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskineko modalitate eta diziplinen katalogoan Eusko Jaurlaritzak aitortutako diziplinetakoak izan beharko dira.

Probek izan behar dute kategoria kadete, gazte, junior edo absolutukoak.

2. Foru dekretu honen ezarpen eremutik kanpo geldituko dira betetera probek, mastersek edo antzekoek sorrarazitako gastuak, zein eskola kiroleko mailletako lehiaketetan baitan sortzen direnak.

3. Ez dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko izen ematea, egonaldia, bidaiak, mantenua edo beste edozein, kirolarien laguntzaileenak badira.

4. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina diru-laguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluaekin bat etorrita, beren-beregi kanpo utzitakoak.

5. Foru dekretu honen helburua eskatzaileen ekintzak babestu eta osatzea da; hori dela eta, ez dira inoiz finantzatuko jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak.

6. Ez da inolaz ere diruz lagunduko sexua dela-eta diskriminatzailea den jarduerarik.

**2. oinarria. — Onuradunak**

1. Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeretako batean egon ez eta baldintza hauek betetzen dituzten kirolariak izan daitezke foru dekretu honen bidez araututako diru-laguntzen onuradunak:

- a) Etenik gabe 2020ko urtarrilaren 1etik Bizkaian erroldaturik daudenak.
- b) 2020ko urtarrilaren 1etik azaroaren 29ra proba hauetan parte hartzea:
 - 1) Titulua ematen duten, titulurako puntuatzen duten edo goragoko maila baterako sailkapena lortzeko diren nazioarteko probetan parte hartzea, baina betiere honako kategoria hauetan: kadeteak, gazteak, juniorrak edo absolutua; probek banaka edo bikoteka parte hartzeko izan behar dute.
 - 2) Titulua ematen duten, titulurako puntuatzen duten edo goragoko maila baterako sailkapena lortzeko diren estatuko probetan parte hartzea, baina betiere Bizkaiko Foru Aldundiak Etorkizun Handiko Kirolari gisa aitortuak badaude; probek banaka edo bikoteka parte hartzeko izan behar dute.
 - 3) Titulua ematen duten, titulurako puntuatzen duten edo goragoko maila baterako sailkapena lortzeko diren nazioarteko probetan parte hartzea, baina betiere probak maila absolutukoak badira; lehiaketek banaka edo bikoteka parte hartzeko izan behar dute.
- c) 2005. urtean edo hori baino lehen jaiotak.
- d) Diru laguntza eskabidearen objektu den modalitateko Bizkaiko lurraldeko kirol federazioan edo, modalitatean Bizkaiko lurralde federaziorik ez badago, Euskadiko federazioan izena emanda duen kirol klub edo elkarte bateko lizentzia edukitzea, 2020. urtekoa edo 2020/2021 denboraldikoa.

Eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira betekizun horiek guztiak. Halaber, prozeduran zehar ere bete behar dira, diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu arte.

2. Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik administrazio-bidean, lan-arloan edo zigor-arloan zehapen irmoa izan dutenek ezin izango dute inolako laguntza ez diru-laguntzarik eskatu ez jaso, ez eta honako hauetan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenek ere: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. tituluari, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta/edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan.

II. TITULUA**ARAUBIDE JURIDIKOA****3. oinarria. — Araudi aplikagarria**

Foru dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, eta, haien guztien osagarri moduan, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea eta beste edozein arau xedapen, duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

4. oinarria. — Arau-haustek eta zehapenak

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluari xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluari xedatutakoa ere.

**III. TITULUA
PROZEDURA****5. oinarria. — Eskabideak aurkezteko lekua eta epea**

1. Diru-laguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu beharko dira (Recalde zumarkalea 30, 1. solairua, Bilbo), edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan.

Horrez gainera, aukera egongo da eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkezteko, <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Adingabeen eskabideak aitak, amak edo legezko ordezkariak aurkeztu beharko ditu. Ondorio guztietarako, haiexek izango dira -eta ez adingabeak- jasotako diru laguntzaren onuradunak. Edonola ere, adingabeak bete behar ditu Foru Dekretu honetako 2. oinarrian ezarritako baldintzak.

Aldiz, adingabea izango da diru laguntzaren onuraduna, baldin eta haren ordainketa izapidetu aurretik adin-nagusitasuna lortzen badu. Kasu horretan, ordainketa izapidetzeko, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ordainduta dauzkatela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

2. Eskatzaile bakoitzak eskabide bakarra aurkeztuko du, froga bakar bati dagokiona, berau egin eta gero.

3. Eskabideak aurkezteko epea Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasi eta 2020ko abenduaren 7a artekoa izango da (egun hau barne).

6. oinarria. — Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak

1. Aurrez aurreko eskabideak eranskinetako eredu ofizialean (I inprimakia, E1 eredu) aurkeztu behar dira, II. inprimakiarekin (E3 eredu) batera, behar bezala beteta. Ereduak web-orri honetan eskura daitezke: <http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak>

Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez aurkeztuz gero, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira betetzeko eta egoitzan aurkezteko dauden eredu berezien arabera eskabideak erabili beharko dira.

2. Kasu bietan, eskabideekin batera dokumentazio orokorra eta hurrengo ataletan eskatutako dokumentazio berezia aurkeztu beharko da, eskatzaileak berak edo eskatzailearen ordezkariak sinatuta.

- a) Eginiko gastua izena emateko, egonaldirako, bidaietarako eta mantenurako, diru laguntza eskabidearen zioa den proban.
- b) Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako batean erroldaturik dagoela adierazten duen ziurtagiri historikoa.
- c) Federazio lizentziaren kopia.
- d) Kirol probaren deskripzio-fitxa.
- e) Banku-helbideraketaren fitxa, alta edo aldaketaren bat bada, bakarrik.
- f) Kirolariaren jaiotza-data, gazteriaren arloko estatistikak egiteko erabiltzeko.
- g) Probak ofiziala dela egiaztatzen duen dokumentua.
- h) Hala badagokio, proban parte hartzeak aldeztu aurretik klasifikatzea eskatzen duela egiaztatuko duen agiria.
- i) Gastuen frogagiriak edo haien fotokopiak. Aurkeztuko diren frogagiri eta faktura guztien zerrenda ordenatua ere ekarri beharko da, zenbatekoa zehaztuta.

3. Bizkaiko Foru Aldundiak egiaztatu egingo ditu eskabidea sinatzen duenaren identifikazio-datuak. Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzailearen banku-kontuaren titulartasun-datuak egiaztatuko ditu, betiere eskatzaileek berariaz uko egiten ez badiote horri.



Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin, baita Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin ere.

4. Halaber, eskabide hau sinatuta baimena ematen zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirolaren Foru Sailari Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak eskatzeko, Dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 21.3 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

7. oinarria.— Eskaera zuzendu eta hobetzea

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, orduan erakunde interesdunari errekerimendua egingo zaio, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan hutsunea zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan; hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela adieraziko zaio.

2. Edonola ere, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

8. oinarria.— Diru-laguntza emateko prozedura

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru-araueko 20. artikulua 1. zenbakiaren bat, diru-laguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka araubidearen arabera izapidetuko da.

Edonola ere, arau horretan hau ezartzen da: salbuespen modura, diru-laguntzaren helburu edo izaeragatik ezinezkoa bada prozedura norgehiagokaren bitartez izapidetzea, norgehiagokarik gabekoa izango da diru-laguntzak emateko prozedura, eta, beraz, eskabideak jaso ahala banatuko dira funtsak —betiere eskabideok deialdian ezarrita dauden betekizunak betetzen badituzte— harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

Kontuan hartuta dekretu honen xedea dela etorkizuna duten kirolariei goi-mailako kirolean parte hartzeko laguntza ematea, foru dekretu honetan aipatzen diren eskabideak norgehiagokarik gabeko araubidean emango dira. Diru-laguntza emateko, espedientean egiaztatuta geratu beharko da eskatzaileak onuradun izateko betekizunak betetzen dituela, bai eta jarduera diru-laguntza jaso dezaketenen artean dagoela ere. Aurreko hori egiaztatu ondoren, diru-laguntzak emango dira, eskura dauden aurrekontuko diru-baliabideen arabera eta 9. oinarrian ezartzen diren mugen barruan.

9. oinarria.— Diru-laguntzak baloratzeko irizpideak

1. Proba baloratzeko, honako portzentaje hauek aplikatuko zaizkio eskabidean jasotako eta diruz lagun daitezkeen gastuei:

Irizpideak / Criterios Kirolariaren maila Nivel deportista	Baietsitako eskabidea Solicitud estimada (%)	Emakumea Mujer (%)	Desgaitasuna Discapacidad (%)	Bertoko kirola Dep autóctono (%)	Aldez aurretiko klasifikazioa Clasificación previa (%)	Gehienez Máximos (%)
Talentuak Talentos	50	15	10	5	15	80
Etorkizun handikoak Promesas	40	15	10	5	15	70
Beste batzuk Otros	30	15	10	5	15	55



«Kirolerako talentuak» dira Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko jarduketa-protokoloarekin bat etorrira, Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako teknikariek osatutako batzorde misto batek hala identifikatutakoak, etorkizun handiko kirolarien artean, kirol-lehiaketetan goi-maila lortzetik hurbil daudela egiaztatu dutelako.

1. mailako etorkizun handiko kirolaria da hala dagoena onartua Bizkaiko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta kirolari horiei laguntza emateko arautegia ezartzen duena Bizkaiko Foru Aldundiaren foru dekretuaren arabera.

3. Ez da ezelan ere emango eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa baino handiagorik, eta ez da bi mila euro (2.000 euro) baino gehiago emango.

Proposatutako azken diru laguntza kopuruak borobildu ahal izango dira beherantz, zentimoei dagokienez.

10. oinarria. — Aholkularitza

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak behar den laguntza tekniko edo aholkularitza eskainiko ditu foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko, (horretarako, <http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKirolak> foru webgunea erabili ahal da).

11. oinarria. — Ebazpena

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4 artikuluan xedatutakoa betez, deialdi honetan, interesdunei ez zaie lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena emango eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

2. Deialdia ebatzi baino lehen, Kirol Zerbitzuak egiaztatuko du ea eskatzaileek egunean dituen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun diru laguntza itzuli behar dutela-eta. Aurreko guztia egiaztatu ondoren ikusten bada eskatzailearen batek betebeharrak horietako edozein ez duela betezen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, behin ebazpena emanda.

3. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hilabete batekoa (1) izango da, eskabide bakoitza aurkezten den egunetik zenbatuta.

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak emango du ebazpena, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren txostena jaso ondoren. Epe hori eskabideari buruzko ebazpen adierazirik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, ebazpen adierazia geroago ere eman ahal izango da.

4. Eskabidea ebazten duen foru aginduaren jakinarazpena posta ziurtatu bidez bidaliko zaie interesdunei, salbu eta eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu dutenei, zeinei egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez jakinaraziko baitzaie.

Foru agindu horretan berriaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta interesdunak errekurtsio hauek jar ditzakeela: foru aginduaren aurka aukerako berraztertze-errekurtsioa, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu andre txit argiaren aurrean, hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, bi hilabeteko (2) epearen barruan, goiko era berean zenbaturik.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, urtero, iragarki bat jarriko du Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, deialdi publiko honetan onetsi diren eskabideen berri emateko.

12. oinarria. — Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin

1. Foru dekretu honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.



2. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretakoren bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke diru laguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru dekretu honen bitartez araututako diru laguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin bat eginda, inolaz ere ezin baita izan pertsona onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

IV. TITULUA

DIRU-LAGUNTZEN KUDEAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

13. oinarria. — Diru laguntza ordaintzea

1. Diru-laguntza ebazten duen foru aginduaren jakinarazpena jaso eta ondorengo hamar egun baliodunetan onuradunak ez badio beren-beregi eta idatziz uko egiten diru-laguntzari, onartu egin duela ulertuko da. Ebazpen hori jakinarazi ondoren hamar egun igaro eta berehala, Kirol Zerbitzuak diru-laguntzari dagokion zenbatekoaren ordainketa izapidetuko du Ogasun eta Finantzen Foru Sailean, eta erakunde onuradunak ez zaie horretarako inolako bermerik eskatuko.

2. Dirulaguntza ordaindu baino lehen, onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun diru laguntza itzuli behar dutela-eta.

Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek ez duela betetzen betebeharrak edozein, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

14. oinarria. — Hartzailearen ekimenez egindako itzulketa

1. Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntza, foru erakundeak aurretik eskatu gabe.

Halakoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatu dituzte, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

2. Onuradunak berak eskatuta diru laguntza itzultzeko ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori Kirol Zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutun horretan honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den diru-laguntzaren aipamena eginez.

3. Diru laguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean ordainketa egin ondoren, ordainketaren kopia edo diru-sarreraren frogagiria bidali behar dio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbituari.

15. oinarria. — Justifikazioa egiteko epea eta era

Foru dekretu honen bitartez arautzen diren diru laguntzen onurak jasotzen dituzten pertsonak diru laguntza ematea eragin duen jarduera gauzatu eta egiaztatu behar dute, eskubideak aurkeztu baino lehen.

Hori dela bide, eman den diru-laguntzaren zenbatekoaren gastuaren erabilera justifikatzea eta jarduera gauzatu dela frogatzea, baita diru-laguntza ematea edo hartaz gatzatzea ekarri duten betebeharrak eta baldintzak bete direla ere, ez da gauzatu behar dokumentu gehigarriak aurkeztuz, justifikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuaren esku egongo baitira diru-laguntza hau esleitu baino lehen.

**16. oinarria. — Diru laguntzaren onuradunaren beste betebeharrak**

- a) Diru laguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldaketarik izan badu, horren berri ematea diru laguntza eman dionari.
- b) Diruz lagundutako jarduera kontrolatzeko, haren jarraipen egiteko edo jarduera ikuskatzeko eginkizunak edo ahalmenak gauzatzeko lanak erraztu beharko ditu.
- c) Udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek xede bererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren berri ematea laguntza eman dion erakundeari.
- d) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari laguntzea, hala eskatzen bazaio, eta erakundearen gaineko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).
- e) Diru-laguntza eman ondoren editatutako material guztietan eta jendaurreko agerpen guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa jaso dela agerrarazi beharko da; horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudian ezarritako elementuak baliatuko dira, nahitaez.
Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa kirol ekipamenduan ezarri beharko du kirolariak, argi ikusteko moduan, diru laguntzaren objektu diren kirol probetan.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial biak erabiltzea diru-laguntzaren xede den jardueraren publizitatean eta zabalkundean, bai euskarri grafikoan bai ikus-entzunezko komunikabideetan (era guztietako iragarkiak, kartelak, liburuxkak...).
- g) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jarduerak onartzea.
- h) Era berean, onuraduna —diruz lagundutako proiektua gauzatzean— behartuta egongo da Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3. artikuluan aurreikusitako printzipio orokorrak betetzera, bereziki behartuta egongo da hizkuntza ez sexista ez erabiltzera hizkera mota guztietan (dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan, ...), edozein euskarritan, idatzizkoetan zein digitaletan.
- i) Bizkaiko Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Diru-laguntzen Erregelamenduaren 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.

17. oinarria. — Itzulketak

1. Jasotako zenbatekoa eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta ez badira betetzen aurreko oinarrietan, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo foru arau hori garatzen duen Erregelamenduan jasotako betebeharratariko bat edo batzuk. Besteak beste, honelakorik gertatzen bada:

- a) Emandako diru laguntzari dagokion helburua bete ez bada.
- b) Diru laguntza lortu bada, nahiz eta horretarako eskatutako baldintzak bete ez.
- c) Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egiten bazaio edo eragozpenak jartzen badira.
- d) Foru dekretu honetan jasotako gainerako baldintzak ez badira betetzen.

2. Jardueraren kostua baino finantziario gehiago jasotzen bada, orduan ere, diru-laguntza itzuli egin beharko da.

18. oinarria. — Aurrekontuko partida

1. Deialdi honetako diru-laguntzak emateko 2020. urtean indarrean dagoen aurrekontu-muga honako hau da:



Berrogeita hamazazpi mila seiehun eta hamar (57.610) euro, 2020ko ekitaldian G/04 03/341109/46999/0000_2017/0017 aurrekontu-partidaren kargura.

2. Deialdiko eskaera guztiak ebatzi ondoren, guztira diru-laguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko litzateke, soberan den zenbatekoan.

AZKEN XEDAPENAK**Amaierako Lehen Xedapena.— *Arauk emateko gaikuntza***

Ahalmena ematen zaio Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari foru dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Amaierako Bigarren Xedapena.— *Indarrean jartzea*

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2020ko ekainaren 16an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ